

# 3 Erabilera planak UEMAn: mugak hausten

**Imanol Haro Solaberrieta**

*UEMAko hizkuntz normalizatzailea*

imanol.udalak@uema.eus

Sarrera-data: 2014-05-20 / Onartze-data: 2014-06-13

**Laburpena:** Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) 1991ko bere sorreratik jardun du udal-tako euskararen erabilera handitzeko eta zabaltzeko lanean eta horretarako ezinbestekoa den planifikazioa egiten. Artikulu honetan, euskal udal-tako euskararen erabilera planak diseinatzeko orduan UEMAK topatu dituen mugak edota zailtasunak azaldu ditu egileak; izan ere, bi hizkuntza ofizialen “elebitasun orekatu zorrotzetik” haragoko praktika sustatu nahi izan du hiztunen eskubideak ez urratzeko. Horretarako, modu berritzaileak bilatu behar izan ditu. Artikuluan, horrez gain, udalerri euskaldunetan erabilera planen etorkizuneko erronkak zein izan litezkeen ere zehazten da. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza politika, lan hizkuntza, udal hizkuntza plana.*

**Abstract:** The Association of Basque-speaking Municipalities (UEMA) has, since it was set up in 1991, been involved in work to increase and spread Basque use, and in the planning which is indispensable for this. In this article the author explains the restrictions or difficulties UEMA has come up against when designing schemes for Basque use in Basque town/city councils; indeed there has been a wish to promote the practice beyond “the strict bilingual balance” of the two official languages in order not to infringe the rights of speakers. For this it has been necessary to seek innovative ways. In addition to that, the article specifies what could be the challenges of future schemes for use in Basque-speaking town/city councils. • **Key Words:** *language policy, workplace language, municipal language scheme.*

## SARRERA

2014ko Udaltop Soziolinguistika jardunaldia dela eta, antolatzaileek Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari eskatu zioten udaletako erabilera planei buruzko hausnarketak jardunaldian azaltzeko eta aurrera begira zer-nolako ibilbidea aurreikusten dugun plazaratzeko. Gonbidapen horrekin bat, BAT Soziolinguistika aldizkarian ponentzia idazteko gonbitea ere jaso genuen. Beraz, denboran bat egin zuten bi gonbidapenek, eta niretzat lan beraren bi zati bezala izan dira, elkarren osagarri.

Jardunaldiotako bigarren egunean, maiatzaren 15ean, “Erabilera planak: mugak hausten” mintzaldia eman nuen. Izenburuak iradokitzen duenez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak muga ugari izan ditu erabilera planak diseinatzean, inplementatzean eta garatzean, eta mugak erronka bihurtzen saiatu da azken 23 urteetan. Zorionez edo zoritxarrez, arazoak akuilu bihurtzea eguneroko ogia izan da UEMAn.

Hurrengo lerroetan jasotakoa ez da hitzez hitz mintzaldian esandakoa, nahiz eta mamia hura izan. Azken batean, egun hartarako prestatutako edukia osatzen saiatu naiz; izan ere, denbora uste baino azkarrago joan zen, eta eduki batzuk azaletik baino ez nituen azaldu. Hartara, batetik, flash edo zertzelada bidez emandako ideia batzuetan sakontzen saiatu naiz, eta, bestetik, mintzaldiaren ondoren batzuekin eta besteekin izandako solasaldien eta lankideek egindako ekarpenen ondorioz pasarte batzuk orraztu ditut. Testua idaztean mintzaldian denborak ezarritako muga hausten saiatu naiz, eta beste muga bat aurkitu dut: karaktere kopuruaren muga.

Udaltop Soziolinguistika jardunaldian, denbora izan nuen muga, eta BAT aldizkarirako testuan, karaktere kopurua. Mugak gainditzean muga berriak sortzen dira. UEMAn jardunaren metafora egokia izan liteke.

Sarreran, beste zerbait ere argi utzi nahi dut, nahiz eta, segur aski, ez naizen izango pertsona egokia hau esateko: Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak balio handia du, eta, lagungarri ez ezik, ezinbestekoa ere bada udalerri euskaldunetako (berr)euskalduntze prozesuan. Ziur nago denborak, berandu baino lehen, arrazoia eman(go) digula hori pentsatzen dugunoi. Ez dut zalantzarik. Argi utzi nahi dut, beraz, nondik —ze erakundetatik— eta zergatik —zer aldarrikatzetik— hitz egin nuen jardunaldietan. Ildo beretik doa, jakina, testu hau ere, hausnarketarekin bat aldarrikapenak ere tokia duelako.

### **Testua, mintzaldia bezala, hiru zatitan dago banatuta:**

Lehenik, hizkuntz politika aurrerakoiak edo aitzindariak gaur eta hemen —XXI. mendean eta udalerri euskaldunetan— zer muga dituen eta ho-

---

***Udalerri  
Euskaldunen  
Mankomunitateak balio handia  
du, eta,  
lagungarri ez  
ezik,  
ezinbestekoa ere  
bada udalerri  
euskaldunetako  
(berr)euskalduntze  
prozesuan.***

**Zoritzarrez,  
euskara  
zerbitzutik at  
hizkuntza  
politikak pisu  
txikia du, eta  
teknikaria/norma-  
lizatzailea  
euskararen  
egoeran eta  
euskaldunen  
inguru  
soziolinguisti-  
koan eragina  
duten  
erabakiguneetatik  
at dago.**

rrek UEMAren jarduna nola oztopatzen duen azalduko ditut. Zatirik luzeena da, eta, luzeena izatea nahita eginda ez badago ere, kasualitatea ere ez da.

Bigarrenik, erabilera planekin zer egin dugun adieraziko dut, azken urtean egindako lana nabarmenduta. Zatirik eskematikoena da.

Hirugarrenik, etorkizunean askatu beharreko korapiloak zein izan litezkeen zehaztuko dut, udalen barne erabilera planak *krisitik/kolapsotik* ateratzeko.

Azkenik, azken ohar bat: jatorrizko testua ahozko azalpenerako prestatua zegoen, eta hasierako asmoa idazkera bera aldatzea zen. Azkenean, jatorrizko estiloa aldatu gabe idatzi dut, mamiaren mesedetan.

## 1. MUGAK HIZKUNTZ POLITIKAN

UEMA 1991n eratu zen, eta hasiera-hasieratik jardun du udaletako euskararen erabilera handitzeko/zabaltzeko lanean. Lan horretan hasi bezain laster konturatu ginen planifikatu beharraz, eta planifikazioa euskarri fisiko batera eraman beharraz. Argi ikusi genuen: kontua ez zen egun batean euskararen aldekoak omen ziren ordenantza batzuk onartzea eta kito. 23 urteko ibilbidean, galdera ugari izan ditugu bidelagun: zer-nola planifikatu, nola eraman planifikazioa euskarri batera, nola egituratu, ze metodologia erabili, zer-nola planifikatu lehenasunen araber... Galdera horiek erantzunez bidea egin dugu, eta bide horretan izan ditugun hausnarketak asko dira.

23 urteko ibilbidea oztopo lasterketa izan da: oztopoa ikusi, oztopoa nola gainditu aztertu, oztopoa gainditzeko saiatu, batzuetan oztopoa gainditu, beste batzuetan ez... Ibilbide osoan, mugak izan ditugu bidelagun, eta, ez da ausarkeria izango esatea etorkizunean ere mugak izango ditugula, idatziaren hirugarren zatian azalduko dudanez.

Hurrengo lerroetan zerrendatutako mugak ez ditut garrantziaren arabera hurrenkeran idatzi. Horrez gain, argi utzi nahi dut mugak ez direla ulertu behar modu isolatuan, elkarri lotutako faktoreek osatzen duten mapa moduan baizik. Gainera, eztabaida amaiezina izan liteke mugak banan-banan garrantziaren arabera zerrendatzea. Gai mamitsua bezain interesgarria izan liteke solasaldi luze baterako. Kanabera botako dut, ea norbaitek amuari heltzen dion: zein (izan) dira muga handienak udalerrri euskaldunetako udaletako erabilera planetan?

Agian, solasaldi horretan parte hartu nahi dutenek estimatuko dute mugen zerrenda hau.

## **Hizkuntz politikaren definizioaren mugak**

Gure inguruan, hizkuntz politikaren definizio murriztu bat da nagusi: hizkuntz politika euskararen ezagutza edo/eta erabilera sustatze hutsarekin lotuta dago (euskalduntze-alfabetatze kanpainak sustatzea, euskarazko liburuen irakurzaletasuna bultzatzea, lan munduan euskararen erabilera handitzeko egitasmoak...). Ildo horretan, hizkuntz politikaren arduraduna, eragilea eta erantzulea euskara zerbitzua da, eta, zehazkiago, euskara teknikaria edo hizkuntz normalizatzailea —horra hor beste eztabaida luze bezain mamitsua. Ze izen du gure lanbideak?—. Izenak izen, eragite esparrua oso mugatua dago.

Zoritxarrez, euskara zerbitzutik at hizkuntz politikak pisu txikia du, eta teknikaria / normalizatzailea euskararen egoeran eta euskaldunen inguru soziolinguistikoan eragina duten erabakiguneetatik at dago.

Laburbilduz, euskararen sustapenarekin lotutako gaietan bere iritzia aintzat hartu ahal izango da, baina ez lurralde jakin baten hizkuntz errealitatean eragina duten erabakietan. Adibide zehatzak ematearren, euskara teknikariaren iritzia pisua izango du herrian bertan euskalduntze-alfabetatze taldeak sortzeko baldintzak zein diren eztabaidatzean, baina lurralde antolamenduarekin lotutako erabakietan aintzat hartuko da bere iritzia? Are gehiago, inork izango du kontuan herrian ez-dakit-zenbat etxebizitza berri eraikitzeak zer-nola eragingo duen herritarren hizkuntz ezagutzan, erabileran...? Edota udalak eskaini beharreko zerbitzuan? Edo udalak herritarrekin harremanetan jartzeko dituen moduetan? Edota herritarrekiko zerbitzu hizkuntzan?

Lurraldea antolatzeko moduak bizitza eredu batzuk sustatuko ditu, eta bizitza eredu batzuek hizkuntz ohitura batzuk aldatuko dituzte, eta, agian, beste batzuk finkatu. Eta herritarrak administrazioarekin daukan beharrak ere aldatzen dira, eta administrazioaren jarduna ere bai. Ez ditugu hona ekarriko gai horrekin lotutako hausnarketak, baina UEMA muga horiek hausten dabil beste eragile batzuekin batera. Lan horretan, jauzi kualitatibotzat har daiteke “Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea” jardunaldia, Lurralde Antolamendua hizkuntz irizpideetara hurbiltzeko saioa (Eranskinetan dago erreferentzia).

Azken batean, hizkuntz politikan eragiteko aukerak mugatuta ditugu, euskara zerbitzutik at eragiteko gaitasun txikia dugulako. Eta kontuz, ez gara aldarrikatzen ari teknikariak / normalizatzaileak erabakiguneetan egotea, baizik eta erabakiguneetan euskararen normalizazioa aintzat hartzea.

**Hizkuntzaren  
estatusa ez da  
soilik esparru  
juridikoari  
dagokion  
kontzeptua,  
hizkuntzaren  
estatusak eta  
estatusaz  
erakunde  
publikoek  
gizarteratzen  
dituzten mezuek  
hizkuntzari  
buruzko ideia  
jakin batzuk  
sustatzen dituzte,  
eta hori oso  
agerikoa da  
Nafarroako Foru  
Erkidegoan.**

## **Bi marko juridiko-politikoaren mugak**

UEMAren jardun eremu nagusia bi marko juridikotan bereizita dago: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, UEMA eta Euskal Konfederazioa elkarlanean aritu ziren, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herriko etxeetan euskararen presentzia areagotzeko, eta 2014an ildo horri berrekin diogu. Nolanahi ere, bistan da Ipar Euskal Herriko lan ildoak ezaugarri desberdinak izango dituela.

Hego Euskal Herriari dagokionez, ez da kontua begien bistakoak diren kontuak azaltzea: Nafarroako Foru Erkidegoan euskara arautzeko lege bat dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoan beste bat dago. Hortaz haragoko hausnarketa dago hemen: hizkuntzaren estatusa ez da soilik esparru juridikoari dagokion kontzeptua, hizkuntzaren estatusak eta estatusaz erakunde publikoek gizarteratzen dituzten mezuek hizkuntzari buruzko ideia jakin batzuk sustatzen dituzte, eta hori oso agerikoa da Nafarroako Foru Erkidegoan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea zailagoa edo errazagoa izan liteke unearen arabera, baina Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritzea edo harekin kolaborazio esparruak irekitzeko aukera oso mugatuta dago. Eta muga ez du legeak ezartzen, baizik eta euskararen normalizazioan Nafarroako Gobernuak izan duen axolagabekeriak edo kontrako jarrerak.

Adibideak hamaika dira. Honatx bat, erabilera planak onartzeko prozedurari buruzkoa: EAEn, udalek erabilera planarekin bat Jaurlaritzaren aldeko txostena onartu behar dute, Jaurlaritzak bermatu egin behar baitu erabilera planak ez duela legerik urratzen. NFEn, berriz, Nafarroako Gobernuak ez du esku-hartzerik izaten: ez du planaren aldeko txostenik. Axolagabekeria? Honatx beste bat: 2014ko egitasmoan zehaztuta dagoenez, UEMAk Hego Euskal Herriko beste erakunde publikoekin euskara bakarrik erabiltzeko eskaerak bideratuko ditu, eta horren aldeko apustu handia egingo du. Tartean daude Jaurlaritza, aldundiak, mankomunitate batzuk... Nafarroako Gobernuak ez dago egitasmoan. Zergatik? Zeruari euria egin dezan eskatzearen pareko eskaera delako.

Adibide gehiago aipatu behar izan gabe, argi daukagu UEMAren egitasmoak EAEn eta NFEn implementatzekoak badira (erabilera planekin lotutakoak nahiz bestelakoak), bi errealitate horiek hartu behar dituela aintzat. Ezin egitasmo bat bere horretan inplementatu Hego Euskal Herriko UEMAko udalerrri guztietan, NFE eta EAE zatikatzen dituen muga hori aintzat hartu gabe.

## **Elebitasun orekatu zorrotzaren eredua**

Hizkuntz normalizazioan ukiezina den printzipiorik badugu, hauxe da: herrialde jakin batean hizkuntza ofizial bateko zein besteko hiztunen hizkuntz eskubideak aitortu eta bermatu behar dira. Printzipio horrek, gaur eta hemen, XXI. mendean eta Hego Euskal Herrian, erdaldun elebazarren eta euskaldun elebidunen hizkuntz eskubideak ez urratzeko neurriak hartzea dakar. Printzipio horrekin bat ez datozen planteamenduak egon badaude —planteamenduak ez ezik praktikak ere bai—, baina ez ditugu hemen aztertuko.

Hartara, hizkuntz eskubideak bermatzeko, idatzizkoari dagokionez<sup>1</sup>, bi formula nagusi daude:

—Lehenengo ereduaren arabera, bi hizkuntza ofizialek, euskarak eta gaztelaniak, parez pareko tokiak izan behar dute erakunde publikoen idatzi guztietan. Ezin da, beraz, hizkuntza bakarria erabili inongo euskarritan (ez errotulazioan, ez izaera administratiboko idatzietan, ez argitalpenetan...), salbu eta herritarrak berak ez badu bi hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeko hautua egiten. Eredu honi elebitasun orekatu zorrotza esango diogu; izan ere, eredu honen arabera zorrotzasunez bete beharko da bi hizkuntzen parez pareko presentzia, bai tamainaz, bai edukiz.

—Bigarren ereduak, behin betiko eta toki orotan balio duen irtenbide bat baino gehiago, galderak planteatzen ditu: lehenengo ereduak guztiak erdaldunetan ez ezik guztiak euskaldunetan ere baliagarria da? Badago tokian tokiko egoera soziolinguistikoari egokitutako beste irtenbide batzuk hautatzea? Azken batean, badago modurik elebitasun orekatu zorrotzetik haragoko beste planteamendu bat/batzuk/asko egitea; betiere, hizkuntza ofizial bietako hiztunen hizkuntz eskubideak urratu gabe. Helburu nagusia euskaldunen eta erdaldunen hizkuntz eskubideak ez urratzea bada, ez dago formula hertsia eta zurrin bakar bat.

Lehenengo ereduaren aldekoek aldarrikatuko dute elebitasun orekatu zorrotza dela modu bakarria bi hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntz eskubideak bermatzeko. Beraz, gaztelaniak eta euskarak hasiera-hasieratik izan behar dute presentzia udal idatzietan eta udalarekin lotutako ahozko jardunean. Eredu honen arabera, hori ukatzea hizkuntz eskubideen urraketa da.

Bigarren ereduaren aldekoek, berriz, aldarrikatuko dute euskaratik eta euskaraz badagoela gaztelaniadunen hizkuntz eskubideak berma-

**Eztabaidagaia ez da ze eredu den onena udal guztietan, baizik eta eredu bat baino gehiago zilegi ote den; hau da, eredu bat baino gehiago ote dagoen bi hizkuntza ofizialetako baten hitzunen hizkuntz eskubideak ez urratzeko.**

tzea, hasiera-hasieratik beti gaztelania erabili behar izan gabe. Irudimena lantzea eta unean uneko irtenbideak hartzea dakar eredu honek, eta den-dena ele biz egin beharraren absurdoa gainditzeko bidean jartzen gaitu. Izan ere, elebitasun orekatu zorrotzaren eredu nagusitzea lorpen handia izan liteke erdara(k) nagusi d(ir)en eremuetan, baina eredu hori muga da euskara nagusi izan d(ir)en eremuetan.

Pentsa liteke Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide diren udaletako hautetsiak bigarren ereduaren alde daudela: den-denak ados, aho batez, pertsona bakarra bailiran. Baina ez da hala. UEMAko udale-tako hautetsi batzuegan pisu handia du lehenengo ereduak, eta beste askorengan zalantza sortzen du bigarrenaren aldeko apustu tinkoa egi-teak. Eta une eta egokiera askotan eztabaidagai da bataren edo bestearen alde egitea.

Eztabaida horretan, ez du batere laguntzen gune euskaldunak aintzat hartzen ez dituen irakurketak egitea. Irakurketa horietan halako baieztapenak aurki ditzakegu: “Elebitasun orekatu zorrotzaren eredu emaitza onak ematen ari da, udal asko gero eta egoera hobean daudelako”. Eta gune euskaldunetako udalen emaitza onak nondik datoz? Elebitasun orekatu zorrotzaren eredu zorrotz betetzetik edota hori gainditzeko aha-legina egitetik? Datuez ari garelarik, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak egindako azterketa oso argigarria da: bigarren ereduaren aldeko udalak daude sailkapenetako goiko postuetan (ikus eranskinetan).

Eztabaidagaia ez da ze eredu den onena udal guztietan, baizik eta eredu bat baino gehiago zilegi ote den; hau da, eredu bat baino gehiago ote dagoen bi hizkuntza ofizialetako baten hitzunen hizkuntz eskubideak ez urratzeko. Eztabaida pizteko galdera hauek har ditzakegu oinarri: ba al dago aukerarik elebitasun orekatu zorrotzetik haragoko ezer egiteko? Borondaterik badago elebitasun orekatu zorrotzetik haragoko ezer egiteko? Zenbateko borondatea?

## **Erdaldunen kontratazioak**

UEMAko udalen euskararen erabilera planen oinarrian hiru helburu estrategiko zehazten dira (ia) beti: Udalak lan hizkuntza euskara izatea, Udalaren zerbitzu hizkuntza euskara izatea, eta erakunde publikoekiko harreman hizkuntza euskara izatea.

Euskara administrazioaren hizkuntza ofiziala den arren, erakunde publiko batzuek ez-euskaldunak kontratatzen jarraitzen dute, eta erabaki hori, puntuala ez ezik, estrategikoa da: Osakidetzan, Ertzaintzan... ikusi dugu. Erran nahi baita ez-euskaldunak kontratatzeko “ohiturak” ez du bukaera datarik. Are gehiago, ez da bukaera data egongo dela ere ira-

garri. Beraz, ondoriozta dezakegu orain arteko politikak berdin jarraituko duela hurrengo urteetan.

Bistan da udalaren jardunaren parte garrantzitsu bat beste erakunde publikoekiko harremana dela, eta beste aldean daudenak erdaldunak badira, *per saecula saeculorum* euskaldundu gabe izango dugu harremanen esparru hori. Estrategikotzat dugun helburua bete gabe, eta helburua ez betetzea betiketuta, alde bakarreko erabakien ondorioz.

Izan ere, alde batean, udalak daude, eta udalek euskararen normalizazioan eman duten bultzadaren ezinbesteko faktorea euskaldunak kontratatzea izan da —edo, beste modu batean esanda, ez-euskaldunak ez kontratatzea—. Beste aldean, berriz, deialdiak joan eta deialdiak etorri ez-euskaldunak kontratatzen jarraitzen duten erakundeak daude (Osakidetza eta Ertzaintza, horien adibide mingarrienak). Nola egin dantza, batek ez badu hankarik mugitu nahi?

Horrez gain, azken urteetan ikusi dugu erakunde publiko batzuek euskararen normalizazioan egindako ahaleginaren parte handi bat langile erdaldunak euskalduntzera bideratzen dela: hizkuntz eskakizunak lortzera, euskalduntzera... Zergatik ez bermatu kontratatu berriak euskaldunak izango direla? Ez al litzateke hori logikoena bere burua elebidun aitortzen duen administrazio batean? Hala eginez gero, ez al genituzke gure baliabideak erabilerara bideratuko, eta ez euskalduntzera?

## **Hizkuntz eskakizunak**

Egiatagiriaren bidez egiaztatzen da hizkuntzaren ezagutza. Zer ziurtatzen du ziurtagiriak? Ziurtatzen du udal arkitekto izan nahi duen batek euskaraz txostenak idazteko nahikoa gaitasun duela, baldin eta aitortzen badiogu arkitekto izateko hautaketa proba guztiak erdaraz egin ditza-keela? Berdin-berdin ziurtatzen da hori urte bete lehenago lortutako ziurtagiriarekin edo 20 urte atzera lortutako ziurtagiriarekin? Zergatik ezin da txertatu derrigorrez euskarazko proba bat hautaketa prozesuan?

Lehen adierazi dudanez, udalen helburu estrategikoetako bat udalaren lan hizkuntza euskara izatea da. Bada, udal batek lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea erabaki izana nola uztartzen da arkitekto izateko hautagai horrek azterketa euskaraz ez egiteko eskubidearekin? Legez, udalaren erabaki estrategikoa hautagaiaren hizkuntz eskubidearen mende dago. Horren ondorioz, euskara lan hizkuntza duen udal batek euskaraz lan egiteko zailtasunak / ezintasunak dituen arkitekto bat kontratatu dezake / kontratatu behar du.

Udaltop Soziolinguistika jardunaldietako mintzaldia amaitutakoan, entzuleei ekarpenak, galdera, hausnarketak edo dena delakoak egiteko

---

***Bistan da udalaren jardunaren parte garrantzitsu bat beste erakunde publikoekiko harremana dela, eta beste aldean daudenak erdaldunak badira, per saecula saeculorum euskaldundu gabe izango dugu harremanen esparru hori.***



**Euskara lan  
hizkuntza duen  
udal batek  
euskaraz lan  
egiteko  
zailtasunak/ezint-  
asunak dituen  
arkitekto bat  
kontratatu  
dezake /  
kontratatu behar  
du.**

aukera ireki genuen, eta kontu honek uste baino arreta handiago piztu zuen. Alde batetik, Erandioko Udaleko teknikari batek adierazi zuen arau berri bat onartu zuela udalak, eta, arau berriaren arabera, langile berrien kontratazioetan hautaketa prozesuko proba bat euskaraz egin beharko zutela. Gaineratu zuen EAEko gobernu ordezkariak errekurrituta zeukala erabakia. Horren ondotik, Zestoako Udaleko teknikariak adierazi zuen udalak baduela aukera hautaketa prozesuan laneko egin-kizun erreal bat jartzea proba batean, eta hori baliatu zitekeela, legea bera modu hertsian ulertu bainoago.

Beste behin ere argi geratu du nork jartzen duen muga, eta nork egiten duen ahalegina muga gainditzeko.

### **Estatuaren esku-hartzea**

Estatuak lupa du hizkuntz politikaren esparruan ari garen eragileen gainean, eta errekerimendu, errekurtsio, auziperatze eta abarren bidez udalen (baina ez bakarrik udalen) euskararen normalizazioko jarduna oztopatu, pozoitu eta indargabetu egiten du. Udaltop Soziolinguistika jardunalditik testu hau idatzi arte udaletara dozenaka gutun iritsi dira, hizkuntz normalizazioarekin lotutako erabakiak atzera botatzeko: erabilera planak onartzeagatik, kontratazio administratiboetan hizkuntz irizpideak sar-tzeagatik, aktak eta udal erabakiak euskaraz egoteagatik... Nolanahi ere, halako esku-hartzeak ez dira atzo goizeko kontua; aspalditik datoz: 80ko hamarkada amaierako euskararen ordenantzak, EAEko Euskararen Legearen 8.3 puntua, kontratazio arloko errekerimenduak...

Askotan aipatzen dugun adibidea EAEko Euskararen Legeari buruzkoa da:

**[8. 3. puntua]** Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hezkuntzako egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri agintariak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute.

Eusko Legebiltzarrean bere horretan onartu zena Auzitegi Konstituzionalak baliogabetu egin zuen.

Kontu honekin gehiegi luzatu gabe, Pako Aristiren aipu hau ekarri nahiko nuke gogora:

“Estatuek ez dute baimentzen hegemonikoa ez den beste hizkuntza baten hedapen larriegirik, traba egiten diete”.

Lehenengo atala bukatzeko, nabarmendu nahiko nuke zerrendako mugak ez direla bakarrak. Badira UEMAk berez dituen beste muga batzuk; adibidez, geografikoak, UEMako herriak Hego Euskal Herrian

sakabanatuta daudelako, eta herriz herri ibiltzea suertatzeak dedikazioaren parte handi bat errepidean pasatzea dakarrelako. Beste muga bat teknikari/normalizatzaile bakoitzak bere gain hartu behar dituen udalen kopurua da: bakoitzak 18-19 udal ditu bere ardurapean. Horregatik, lerro artean bada ere, erabilera planetan gabiltzan taldeko kide guztien izenean adierazi nahi dugu biziki eskertzen dugula udal hautetsiek edo udal langileek ematen diguten laguntza oro.

Eta beste muga batzuk ere badira, atal honetan zeharka ageri izan direnak, eta aipatu beharrekoak: indarrean dagoen hizkuntz politika borondatean oinarrituta egotea eta derrigortasunaren bidetik joateari uko egin izana, udalek hizkuntz politikan duten eskumen murrizta...

Nolanahi ere, zuhaitz gehiagoren aipamenak ez gaitzala eraman basoa ez ikustera. Eta basoa, ideia nagusia, hau da: mugak izan ditugu, eta mugak gainditzeko bideak jorratu ditugu.

## 2. ERABILERA PLANEKIN ZER EGIN DUGUN

UEMA 90eko hamarkadatik ari da udalen erabilera planak egiten. Orduz geroztik, deitura, euskarri, metodologia eta egituraketa ugari erabili ditugu UEMAn. Jardun horretatik hainbat ondorio atera ditugu<sup>2</sup>:

—Plangintzaldiek ez dute bat egiten udalaren funtzionamenduarekin (legealdiekin). Udalen jarduna legealdiek baldintzatzen dute, eta erabilera planena plangintzaldiek. Ez du logika handirik udal gobernu batek aurreko udal gobernuak diseinatu eta onartutako plana onartu behar izateak, ez eta legealdiaren amaieran bost urterako erabilera plan bat onartu behar izateak ere.

—Gehienetan, erabilera planak egiteak gehiago erantzun dio legez derrigortuta egoteari udalen benetako premiei baino. Erabilera plana egiteko motibo nagusia ez da izan udalek neurri berriak hartzeko sentitu duten premia, baizik eta Jaurlaritzatik etorritako aginduari men egitea. Gero, beste kontu bat da erabilera plana onartzeak jauzi kualitatiboak egiteko aukera eman duten, baina jatorrian, ia beti, Jaurlaritzak plangintzaldiari lotuta helarazi duen agindua dago.

—Askotan, erabilera plana diseinatzea eta onartzea helburu bihurtu da tresna baino gehiago. Legeak berak ere plana egitera bultzatzen ditu udalak, ez planak garatzera edo inplementatzera. Egin beharreko nagusia erabilera plana onartzea da, eta horretan joaten zaizkigu indar gehienak. Bestea, onartu ondoren datorrena, derrigorrezkoa ez denez, udal hautetsien borondatearen arabera egingo da

---

**UEMA 90eko hamarkadatik ari da udalen erabilera planak egiten. Orduz geroztik, deitura, euskarri, metodologia eta egituraketa ugari erabili ditugu UEMAn.**

hobeto edo okerrago. Halaber, erabilera plana egiteko erabaki hartzen denetik erabilera plana inplementatzen hasten den arteko denbora gehiegizkoa izan ohi da, eta energia asko galtzen da bidean.

—UEMAN hainbat metodologia, egituraketa, aplikazio informatiko... erabili ditugu, gureak zein beste erakunde batzuenak, eta, plangintzaldiak joan eta plangintzaldiak etorri, ez da metodologia bat nagusitu, ezta egituraketa edo aplikazio informatiko bat ere (Aebemet, Irati...). Plangintzaldi bakoitzarekin, erabilera plana egitea nekagarria izan daiteke, baina metodologia berri bat diseinatu behar izatea are nekagarriagoa da. Estandarizaziotik urrun gaudela ematen du: noizko metodologia bakarra udal guztiek gauza bera egiteko? Esan bezala, estandarizaziotik urrun, baina, agian, gero eta gertuago, premia ikusten dugunok asko garenez.

—Zerbait nagusitu bada, eskema hau da: irizpideak, helburuak, ekintzak, adierazleak. Planak hizkuntz irizpide batzuk jasotzen baditu eta udalak irizpide horiek bere horretan betetzen baditu, plana %100ean beteko da. Irizpideak betetzen ez badira, irizpideak betetze bidean jartzeko helburuak zehaztu beharko dira, eta ekintzak diseinatu helburu horiek begira. Halaber, helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko, adierazleak erabiliko ditugu. Esango nuke eskema horren baitan funtzionatzen dugula, oro har, baina erakundeotan adierazleak, ekintzak... bateratu gabe ditugu.

—Jarraipena da gakoa, eta jarraipenerako ere ez da formula bakar bat erabili. Toki batean eraginkorra dena ez da eraginkorra beste batean (euskara batzordeak, jarraipen batzordeak, lan taldeak...). Garrantzitsuena bidelagunak izateko egitura egokienak bilatzea da, irtenbide zurrun eta bakarretatik urrunduta.

—Zuhaitzek basoa ikusten uzten ez digutelako sentazioa izan dugu askotan: Non gaude? Asko aurreratu dugu? Ondo goaz? Zenbat falta zaigu helmugara iristeko? Aurreko erabilera planean zehaztutako helburua beteta dago? Zein da ibilbidearen helmuga? Ikuspegi estrategikoa dugu edo noraeza estrategikoan murgilduta gaude?

2013an galdera horiekin lotutako kezkak mahaigaineratu, hausnartu, eta konpontzen saiatzen hasteko ahalegin praktikoa egin genuen: 2013an, 68 plan egin ditugu, eta beste lau egiteko lanean murgilduta gabiltza. Lan horren oinarriak hauek izan dira:

—Planetan txertatutako hizkuntz irizpideak Jaurlaritzarekin adostuak. 1995ean adostutakoak aldatu egin dituzte, Euskararen Legea-

ren interpretazio murriztagoa eginda. Dударik ez daukat estatuaren esku-hartzeak eragin handia izan duela Jauralaritzak egindako irakurketa murriztailean.<sup>3</sup>

—Udalaren hizkuntzaren erabilera lau alorretan banatu dugu. Gogoan hartu behar da Irati aplikazio informatikoak 12 esparru zehazten dituela. Hauek dira alorrak:

- Udalaren irudi korporatiboa
- Barne harremanak
- Kanpo harremanak
- Udal baliabideak

—Lau alorretan oinarritutako galdetegia prestatu

—Udal langile eta hautetsiekin galdetegia bete: datu aitortuak

—Datuetatik, hainbat txosten atera ditugu.

—Datuekin diagnostikoa osatu. Udal handietan sail/ departamentu bakoitzak diagnostiko bat izan du. Udal txikiek diagnostiko bakarra dute. Diagnostikoan alorrez alor UEMAren hizkuntz irizpideak zehazteraino bete diren zehaztu, udal bakoitzari nota bat emateraino (0-10). Nota horren arabera, udalak mailakatu egin ditugu. Honako maila hauek zehaztu ditugu:


- Tontorrean: oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz osotasunean funtzionatzeko moduan dauden udalak egongo dira maila honetan.
- Gorabidean: nagusiki euskaraz eta ele bietan (euskarari lehentasuna emanda) funtzionatzeko moduan dauden udalak dira maila honetan kokatuko ditugunak.
- Magalean: nagusiki, ele bietan eta modu orekatuan funtzionatzen duten udalak.
- Abian: ele bietan funtzionatzera bidean, oraindik urrats handia egiteko duten udalak izango dira. Udalotan gaztelaniak presentzia nabarmena du.

Grafiko honetan ikus dezakezue maila bakoitzean zenbat udal dauden:

---

***Argi eduki behar  
dugu jarraipena  
dela gakoa.***

### 1. grafikoa. UEMako udalak



Grafikoan ikusten denez, ez dago UEMako udalik “Abian” mailan. Udalez udaleko datuak Berria egunkarian argitaratu ziren, eta eranski-netan duzue esteka.

—Diagnostikoa oinarrituta, erabilera plana egin dugu, 2017aren amaieran beteta egon behar duten helburu orokorrekin. Osoko Bilkurak onartu beharrekoa agiria da, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren oniritzia behar du. Jarraipen Batzordea eratzea ere onartzen du Osoko Bilkurak.

—Urtez urteko kudeaketa planak egin ditugu, ekintza, arduradun eta epe zehatzekin.

### 3. ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Etorkizunera begira, argi dago lehenengo puntuan nabarmendutako mugak higitzen, desagerrarazten edo gainditzen ematen den pauso ba-koitza euskararen normalizazioaren aldeko pausoa izango dela, eta hori bezain argi daukagu hori onuragarria izango dela udalen euskararen erabilera hobera egiteko.

Maila teknikoagoan, labur-labur, korapilo handi batzuk askatzen hasi beharra dagoela ikusten dugu. Neurri handi batean, ñabardurak ñabardura, HAKOBAn erabilera planez hausnartzeko sortutako taldean agertu diren kontuak dira, eta norbaitek gaian sakondu nahi izanez gero, ez dut uste materiala eskuratzeko zailtasunik izango duenik. Hona hemen zertzelada laburrez zipriztindutako irakurketa:

—Metodologia are gehiago arindu behar da. Ezer ezetik plana onartzen den arteko denborak eta dedikazioak ezin du izan plana inplementatzeko behar dugun denbora eta dedikazioa baino luzeagoa.

—Lan egiteko modu homogeenorik ez dugu. Galdera asko daude erantzun gabe: zein dira helburuak?, zein adierazleak?, zer neurtu behar da eta nola?... Hasteko, guztiok gauza berari berdin deitzeak asko lagunduko liguke.

—Formazio espezifikoen beharra sumatzen da: erabakien kudeaketa, dedikazioak zehaztea, kalitatean oinarritutako metodologiak, lehenetasunak markatzea... Horretan trebatu behar al dugu? Utziko al diogu *ebanjelizatzeari* noizbait? Puntu honek ere aparteko garrantzia hartu zuen Udaltop Soziolinguistika jardunaldian, eta teknikariok/normalizatzaileok zer-nola trebatu behar dugun/gaituzten baino lehenagoko galdera batzuk erantzuteko irrika sumatu nuen. Gure lanbidea birdefinitzeko ahalegin bat sumatu nuen, eta profil berri bat sortzeko hainbat kontzeptu mahaigaineratu ziren: dinamizatzailea, bide-erakuslea, eragilea...

—Planen erredakzioan interpretaziorako tartea txikitu beharko da. Helburuek gauza jakin bat esan behar dute, lausotasunik gabeak. Dударik ez da horretan asko lagunduko lukeela egin nahi duguna jartzeko legezko mugarik ez izatea; bestela, beti ibiliko gara interpretazio bikoitzak, hirukoitzak eta *abarkoitzak* egiten.

—Datuen tratamendu informatikoa lortu behar da, eta, horretan, bi esparru bereizi beharko lirarteke: batetik, une jakin bateko datuak sartuz une jakin horretako egoera zein den erakusten duen aplikazioa; eta, bestetik, jarraipena egiteko aukera ematen duen aplikazioa; hau da, bilakaera ikusteko baliagarria den aplikazioa.

—Gaur eta hemen, gakoa jarraipenean dago. Guztiaren gainetik, zeregin bati bakarrik heldu beharko bagenio, argi eduki behar dugu jarraipena dela gakoa: etenik gabeko jarraipena, teknikariaren/normalizatzailearen bizkar geratzen ez dena, partekatua; ekintzen emaitzak neurtzeko, helburuen betetze maila zehazteko eta aurrera begirakoak zein izango diren finkatzeko.

Horra hor erronka nagusiak, alde teknikitik begiratuta.

Nolanahi ere, erronkak erronka, hainbat eragileren ahotatik entzundakoagatik ematen du erabilera planak nolabaiteko *krisian* edo *kolapsoan* daudela. “Ez atzera, ez aurrera” bezalako egoera batean. Eta gauza asko jartzen dira zalantzan, galdera ugari sortzen zaigu... Batzuetan ematen du galdera baten erantzunean asmatzen hasten garenean galdera

---

**Zerk du indar  
gehien,  
konformismoak,  
kemen faltak eta  
kolapsoak edo  
erronkak,  
edertasunak eta  
kemenak?**

gehiago sortzen zaigula, enbor bateko adarrak eta adar bakoitzeko adar-  
txoak eta adar txo bakoitzeko hostoak bailiran. Eta, batzuetan, galdera  
gehiago ez egitea ere tentazio handia da, jakin badakigulako galdera  
baten erantzunaren ostean galdera gehiago datorrela.

Horrek ezkortasuna elikatu dezake, eta, berez, elikatu egiten du,  
noraeza, ezintasuna eta ezkortasuna neurritz kanpo handitzeraino. Ho-  
rren lekukotzak asko izan ziren Udaltop Soziolinguistika jardunaldian,  
bai mikrofonoa hartu eta jende askoren aurrean hitz egin zutenen par-  
tetik, bai talde txikietan hitz egin zutenen partetik.

Euskara teknikariok edo hizkuntz normalizatzailleok ezkortasuna eta  
gauzak aurrera eramateko ezintasuna bide-lagun izaten dugu askotan.

Horregatik, ezkortasunaren zurrumbilo suntsitzailean ez erortzeko,  
Udaltop Soziolinguistika jardunaldian bezala, Albert Einsteinen aipu  
bat ekarri nahi dut gogora:

“**Krisia** pertsoneri eta herriei gerta dakiekeen **gauzarik ederrena** da. Krisirik  
gabe ez dago **erronkarik**, eta erronkarik gabe bizitza **aspergarria** da, **agonia**  
**motel etengabea**. Krisiaz mintzatzea krisia bera **eragitea** da. **Isiltzea**, berriz,  
**konformismoa** ereitea. Benetan mehatxatzen gaituen krisi bakarra egoera  
iraultzeko dugun **kemen falta** da”.

Krisia, gauzarik ederrena, erronka, aspergarria, agonია motel eten-  
gabea, eragitea, isiltzea, konformismoa, kemen falta. Hitz horiek nabar-  
menduta daude testuan. Idatzi honen azken partean, galdera egin nahiko  
nieke lanbide honetan gabiltzan beste batzuei: ze toki dute zure egune-  
roko jardunean kontzeptu horiek? Zerk du indar gehien, konformismoak,  
kemen faltak eta kolapsoak edo erronkak, edertasunak eta kemenak?

Agian, kanpo mugez gain barru mugak ere baditugu? ●

## **OHARRAK**

1. Ahozkoan, herritarrak hautatutako hizkuntzan hitz egin beharko lioke administrazio-  
solaskideak, eta hori ukatzea hizkuntz eskubideen urraketa larria da. Hortik harago, ezer  
gutxi gaineratu liteke.
2. Ondorio gehienak EA Eri lotuta daude, lehenengo atalean aipatu ditudan arrazoiengatik.
3. 2013ko urrian Jaurlaritzak gutun bidez jakinarazi die udalei hilabete batzuk lehenago  
onartutako erabilera planetako hizkuntz irizpideetan ez dagoela legezko nahikoa oina-  
rririk. Hizkuntz irizpide horiek legezkoak zirela adierazi zuen Jaurlaritzak duela urte  
bete, eta halaxe dago jasota idatziz.

## **ERANSKINAK, OSAGARRIAK**

Erreferentzia asko emateak duen arriskuaz jabetuta, erreferentzia bakar  
batzuk besterik ez ditut aukeratu.

**UEMAri buruzko informazioa:** [www.uma.org](http://www.uma.org)

**Kontseiluaren udal neurketa, 2010eko datuak:**

[http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/dokumentuak/2010eko\\_ranking\\_osa.pdf](http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/dokumentuak/2010eko_ranking_osa.pdf)

**Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. jardunaldia:**

<http://www.ueu.org/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/628/Lurraldea+eta+Hizkuntza.+Hizkuntza+eta+Lurraldea.+I.+jardunaldiak>

**UEMA 1991-2000. BAT soziolinguistika aldizkariaren 34. zenbakia (2000ko maiatza)**

Dosier berezia UEMAri buruz.

**“Maldetan koskak gaintitzen”. Berrian argitaratutako artikulua (2014-03-18)**

[http://paperekoa.berria.info/harian/2014-03-18/020/001/maldetan\\_koskak\\_gaintitzen.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2014-03-18/020/001/maldetan_koskak_gaintitzen.htm) (UEMAko udalen mailaketa ageri da artikuluan, 2014an landu beharreko ildoet gain)